



BEZERO KANALAK

Gure enpresak hainbat kanal izango ditu bezeroak gurekin kontaktatu dezaten; web orria, sare sozialak eta fisikoki (surf eskola). Web orriaren bitartez, gure web orrian arreta zerbitzuak izango ditugu, telefono zenbaki bat eta baita bezeroek dituzten ideiak guri helarazteko postontzia. Horretaz gain, sare sozialak izango ditugu, bezeroak gure produktua ikusteko eta gurekin kontaktatzeko aukera izango dute. Bestalde, fisikoki surf eskolan ere bezeroekin harremana izango dugu, nahiz eta surf eskolako ekintza nagusia surf klaseak izan. Gure enpresarek bezeroekin edukiko duen harremana online ere izango da, honela, erraztasun ikaragarria emango digu gauzak azkar adosterako orduan.

